

Sin./Fdo.: ZURIÑE MIREN ANTOÑANA OZAETA - 2020-05-19
KULTURA ONDAREAREN ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE PATRIMONIO CULTURAL

Sin./Fdo.: JOSEBA ANDONI ITURBE AMOREBIETA - 2020-05-19
KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

Sin./Fdo.: LOREA BILBAO IBARRA - 2020-05-19
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

74/2020 FORU DEKRETUA, MAIATZAREN 19(e)KOA, AHALDUN NAGUSIARENA, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 6/2019 Foru Arauan jasotako diru-laguntza izenduna Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaiari ematen baitzaio, museo horrek 2020. urtean zehar egiten dituen jarduerak orokorrean finantzatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailaren eskumenekoa da, besteak beste, Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea; horrela, berezko kultura ezagutarazteko eta garatzeko aukera ematen da eta Bizkaiko gizartea kultura guztietara zabaltzen da. Horretarako, sail honek Bizkaiaren eta bere Foru Aldundiaren izen ona modu berezian zabaltzeko kultur-adierazpenak antolatzen eta zabaltzen laguntzen du.

Bizkaiko Eleiz Museoak oso jarduera interesgarriak burutzen ditu Lurralde Historikorako, zeren posible egiten baitu jendeari erakustea, batetik, Eliza Katolikoaren Bilboko Gotzaindegiko tenplu eta elizako beste erakunde batzuetatik jaso egin izandako eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoak diren artezko oso balio handiko piezak.

Jarduerok, 2020 ekitaldiari dagokion Jardueren Proiektuaren arabera, honako hauetan gauzatuko dira:

DECRETO FORAL DEL DIPUTADO GENERAL 74/2020, DE 19 DE MAYO, por el que se concede la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 6/2019, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2020, a favor del Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia, para la financiación global de las actividades de dicho museo durante el año 2020.

Entre las competencias del Departamento foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figuran el promover y difundir la cultura en Bizkaia, posibilitando con ello el conocimiento y desarrollo de la cultura propia y abriendo ampliamente la sociedad vizcaína a todas las culturas. A tal fin, este Departamento organiza y colabora en la difusión de diferentes manifestaciones culturales que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral.

El Museo Diocesano de Arte Sacro realiza una serie de actividades de gran interés para el Territorio Histórico, ya que hace posible la exposición al público de las piezas de valor artístico que han sido recogidas de los diversos templos y otros entes eclesiásticos de la Iglesia Católica, Diócesis de Bilbao, y las que de arte sacro posee de su propiedad la Diputación Foral de Bizkaia.

Según el Proyecto de Actividades correspondiente al ejercicio 2020 presentado, éstas consistirán en:



- Tailer didaktikoak (eskola-ikasturte osoan).
- Talleres didácticos (durante todo el curso escolar).
- Bisita gidatuak.
- Visitas guiadas.
- “Los dulces del convento” azoka.
- Mercado de “Los dulces del convento”.
- Belenes del Mundo erakusketa.
- Exposición Belenes del Mundo.
- Parte-hartzea Museoen Nazioarteko Egunean.
- Participación en el Día Internacional de los Museos.
- Parte-hartzea Ondareari buruzko Europako Jardunaldietan.
- Participación en las Jornadas Europeas de Patrimonio.
- «La abadía de Atxuri» izeneko ihes-jolasa.
- Juego de escape titulado “La abadía de Atxuri”
- Bildumaren inbentarioa.
- Inventario de la colección.
- Argazkien artxiboaren antolaketa.
- Organización del archivo fotográfico.
- Apaingarrien (jantziak) atalaren antolaketa.
- Organización de la sección de ornamentos (vestiduras).
- Derioko seminario zaharrear gorde diren funtsen antolaketa.
- Organización de los fondos conservados en el antiguo Seminario de Derio.
- Praktikak egiteko EHU eta Deustuko Unibertsitatearekiko lankidetzak.-
- Colaboraciones con la UPV y la Universidad de Deusto para la realización de prácticas.
- Aurreko urteetan bezala, hirugarren entitate batzuek antolatutako zenbait jarduera egingo dira museoan, museoaren jardun-eremukoak ez direnak (Bilboko Udala).
- Como en años anteriores, también se desarrollarán en el Museo algunas actividades ajenas al mismo organizadas por terceras entidades (Ayuntamiento de Bilbao).
- Museo Margarita Mariárekin zerikusia duten jarduerak.
- Actividades relacionadas con el Museo Margarita María.
- «Jazotakoa jaso» lehiaketa antolatzea.
- Organización del concurso “Jazotakoa Jaso”.

Eta, erakunde onuradunak emaniko informazioarekin bat etorritik, 2020 ekitaldirako gastu-aurrekontua 331.400 eurokoa da.

Y de conformidad con la información facilitada por la entidad beneficiaria, su presupuesto de gasto para el ejercicio 2020 asciende a la cantidad 331.400 euros.



Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2.a) artikuluan xedatzen du Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan aurrez ikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla.

Diru-laguntzen foru araudiaren 50.3 artikuluan arabera (Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua) foru diru-laguntza izendunak emateko prozedura, hitzarmenik ez baldin badago, beronen oinarri arautzaileak ezarriko dituen emateko ebazpen baten bidez emango da, foru diru-laguntzak emateko kopuruaren arrazoiz eskumenezko mugei dagokienez Araudiaren beraren 12 artikuluan ezarria denaren arabera.

Diru-laguntza hori emateko, kontuan hartu da zer eskuduntza esleitzen dioten Ahaldun Nagusiari hala Foru-administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9. artikulua nola 2010eko martxoaren 23ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 12. artikulua.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 6/2019 Foru Arauan aurreikusten da Bizkaiko Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoari 140.000 euroko diru-laguntza izendun bat ematea. Ebazpen honen bidez diruz laguntzen den proiektuaren kudeaketaren zioz sortutako gastuari aurre egiteko, diru-laguntza aurrekontu-partida honen kontura izapidetuko da: 0404 G/333103/45100/0000 2007/0178.

La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, dispone en su artículo 20.2.a) que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

A tenor del artículo 50.3 del Reglamento foral de subvenciones (Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo) el procedimiento de concesión de las subvenciones forales nominativas, en ausencia de convenio, vendrá dado por una resolución de concesión que determine las bases reguladoras de la misma, a tenor de lo establecido en el artículo 12 del propio Reglamento en lo referido a límites competenciales por razón de cuantía para la concesión de subvenciones forales.

Esta subvención se otorga en virtud de la competencia atribuida al Diputado General por los artículos 9 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y 12 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo.

La Norma Foral 6/2019, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2020, prevé una subvención nominativa por importe de 140.000 euros a favor del Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia. La tramitación de dicha subvención se imputará a la partida presupuestaria 0404 G/333103/45100/0000 2007/0178, para hacer frente al gasto que se deriva de la gestión del proyecto subvencionado a través de la presente resolución.



Entitateak adierazten du ez dagoela sartuta foru diru-laguntzen onuradun izatea eragozten duen ezein egoeratan (egoera horiek 5/2005 Foru Arauaren 12.2 artikuluan daude ezarrita), eta halaber adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikulua arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

La entidad manifiesta no encontrarse incurso en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 27.1, 39 eta 67. 1 artikuluetan eta, baita ere, Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak onetsi duen Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduan xedatuaren arabera, Euskara, Kultura eta Kirol foru-diputatu andre txit argiak proposatuta, hauxe

Por todo ello, en virtud de los artículos 27.1, 39 y 67.1 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera y Cultura aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 22/2018, de 6 de marzo, a propuesta de la Ilma. Sra. Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte,

XEDATZEN DA

SE DISPONE

LEHENA.- Bizkaiko Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoari (IFZ: R-4800604 C) EHUN ETA BERROGEI MILA EURO (140.000 €) zenbateko jakineko diru-laguntza izendun bat ematea, 2020. urtean egingo dituen jarduerak osorik finantzatzeko.

PRIMERO.- Conceder una subvención nominativa por importe cierto de CIENTO CUARENTA MIL EUROS (140.000 €) a favor del Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia (NIF R-4800604 C), para la financiación global de las actividades del mismo durante el año 2020.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikulua onorioetarako, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen diru-laguntzen erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak ezarritakoaren babesean, onuradunak Aldundiak emandako diru-

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto dispone el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, la presente subvención foral será



laguntza honekin batera beste edozein administrazio edo erakunderen laguntza ere jaso dezake hitzarmen honen xedea garatu eta burutzeko.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin da inoiz izan diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, eskatzen den finantzaketa propioa ere kontuan hartuta.

BIGARRENA.- Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua ezartzen duen diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptua betez emango dira diru-laguntza hauek. Ondorio horietarako, diru-laguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak. Diruz lagundutako gastuen kostua ezin izango da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Zergak gastu diruz lagungarriak dira diru-laguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenean. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

HIRUGARRENA.- Diru-laguntza eman dela jakinarazten denetik hamar egun igaro eta gero, diru-laguntza hori onartutzat hartuko da, eta, berehalaxe, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ondare Zerbitzua izapideak egiten hasiko da Ogasun eta Finantzen Sailarekin, diru-laguntza ordainketa bakar baten ordaintzeko; horretarako, ez zaio ezein

compatible con cualquier otra que la beneficiaria recibiera de cualesquiera Administración o ente para el desarrollo y ejecución del objeto del presente convenio.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, supere el coste de la actividad subvencionada.

SEGUNDO.- La concesión de la presente subvención se realiza atendiendo al concepto de gastos subvencionables que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. A estos efectos tienen la consideración de gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los bienes subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

TERCERO.- Transcurridos diez días desde la notificación de la concesión de la presente subvención, ésta se considerará aceptada e, inmediatamente, el Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte procederá a tramitar el abono de la misma en un sólo pago ante el Departamento de Hacienda y Finanzas, no



bermerik eskatuko onuradunari, zergatik eta ez delako arriskurik aurreikusten hartutako betebeharrak ez betetzeko.

Nolanahi ere, betebeharra onartu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, egiaztatu egingo da entitate onuraduna egunean dagoela zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei dagokienez, eta dirua itzultzeko ebazpenen baten ondorioz zorduna ez dela.

Baldin eta egiaztapenean antzematen bada erakunde onuradunak ez duela betetzen aurreko paragrafoan ezarritakoa, hamar (10) egun baliouduneko epealdia emango zaio, bere egoera erregularizatzeko, eta adieraziko zaio, hori egin ezean, foru diru-laguntza jasotzeko eskubidea kenduko zaiola, administrazio-ebazpen baten bitartez.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen bidez emandako diru-laguntzaren onuradunak hauek betetzeko konpromisoa hartu du:

- a) Diruz lagundu den proiektua egitea.
- b) Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu du foru arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako diru-laguntzen araudiko 65. artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunak kontabilitateko egoera-orri auditatuak aurkeztuta egingo du proiektuaren justifikazioa (auditoreak Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuaren menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon behar du jarduneko auditore gisa); justifikazio-kontu hori 2021eko ekainaren 29ra arte (egun

exigiéndose para ello garantía alguna a la beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas.

En todo caso, previo al reconocimiento de la obligación y al abono de esta subvención foral, se comprobará que la entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que tal entidad incumple lo establecido en el párrafo anterior, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días hábiles regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la subvención foral, previa la correspondiente resolución administrativa.

CUARTO.- La entidad beneficiaria de la subvención concedida por medio de la presente resolución se compromete a:

- a) Realizar el proyecto subvencionado.
- b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 65 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la justificación del proyecto realizado por parte de la entidad beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta el 29 de junio de 2021 (incluido), de estados contables auditados, elaborados por auditor de cuentas inscrito como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas,



hori barne) aurkeztu beharko du. Auditoriaren helburu den kontabilitateko informazioa onuradunak bete beharreko ordenamendu juridikoan ezarritako sistemaren arabera eginda egon behar da. Kontu-auditoreak jaso beharreko ordainsari osagarria diruz lagundutako proiektu osoari egotz dakioken gastutzat hartuko da.

debiendo estar la información contable objeto de auditoría elaborada conforme al sistema previsto en el ordenamiento jurídico al que esté sometida la persona beneficiaria. La retribución adicional que corresponda percibir a la persona auditora de cuentas tendrá la condición de gasto imputable a la ejecución del proyecto subvencionado en su totalidad.

c) Horrez gain, kontuen ikuskariak aurrekoaren txosten osagarria egingo du (Diru-laguntzen foru Erregelamenduaren 65.3 art.), datu hauek bilduko dituena:

c) Adicionalmente el auditor de cuentas realizará un informe complementario (art. 65.3 del Reglamento Foral de Subvenciones) al anterior que comprenderá los siguientes extremos:

1. Auditorea izendatu duen organoa eta onuraduna identifikatzea.

1. Identificación de la beneficiaria y del órgano que haya procedido a la designación de la persona auditora.

2. Diru-laguntza kudeatu duen erakundea identifikatzea.

2. Identificación del órgano gestor de la subvención.

3. Jasotako diru-laguntza identifikatzea, ematea ebatzi zuen ebazpena eta hori aldatu duten gaineko ebazpenak adieraziz.

3. Identificación de la subvención percibida, mediante la indicación de la resolución de concesión y demás resoluciones posteriores que modifiquen la anterior.

4. Ikuskatu beharreko kontabilitate egoerak identifikatzea; txostenari eranskin gisa atxikiko zaizkio.

4. Identificación de los estados contables objeto de revisión, que se acompañarán como anexo al informe.

5 Diru-laguntzen Erregelamenduaren eta diru-laguntza arautu duen gainerako araudiaren erreferentzia.

5. Referencia al Reglamento Foral de Subvenciones y al resto de normativa que regula la subvención.

6. Auditoreak egindako ikuskapen prozeduraren xehetasunak, irismena eta laginketa teknikak, diru-laguntza egoki aplikatzeari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko baliatutakoak.

6. Detalle de los procedimientos de revisión llevados a cabo por la persona auditora, su alcance y técnicas de muestreo que le hayan permitido obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.

7. Honi dagokionez egindako egiaztapenen emaitza:

7. Resultado de las comprobaciones realizadas respecto a:



-Diruz lagun daitezkeen gastuetarako finkatutako baldintzak betetzea, horien zenbatekoa Administrazio kontratuetarako araudian finkatutako zenbatekoa baino gehiagokoa bada kontratu txikian. Diru-laguntzen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua betetzen dela egiaztatu beharko da, alegia onuradunak hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez; hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada.

-Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala behar denean, diru-laguntzaren eskabidean; haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira memoria batean.

-Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

BOSGARRENA.- Dekretu honen xedearen burutzapenaren jarraipena egiteko eta hura behar bezala betetzen den eta erakundeak jasotako funtsak nola erabiltzen dituen kontrolatzeko, alde biko jarraipen batzordea eratuko da. Honakoek osatuko dute batzorde hori: Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, Kultura Zuzendari nagusia edo horrek eskuordetutako pertsonak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko buruak, bai eta Eleiz Museoko bi ordezkari ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 22. artikulua jasotzen duena betez.

-El cumplimiento de las condiciones establecidas para los gastos subvencionables cuyos importes superen las cuantías establecidas en la correspondiente normativa de contratación administrativa para el contrato menor. Se deberá verificar que en cumplimiento del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones, la beneficiaria ha solicitado como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

-La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

-Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

QUINTO.- A los efectos de dar seguimiento, y controlar la correcta ejecución del objeto de este decreto, así como de la aplicación de los fondos recibidos, se constituirá una Comisión de seguimiento bipartita compuesta por el Director General de Cultura, o persona en quien éste delegue, y la Jefa del Servicio de Patrimonio Cultural, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, y dos representantes del Museo Diocesano de Arte Sacro de Bilbao nombrados por éste, dando cumplimiento a lo establecido a tal efecto por el artículo 22 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.



Batzorde horren burua Kulturako zuzendari nagusia izango da edo berak eskuordetutako pertsona; bertako idazkaria Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua izango da.

Batzorde hori urteko azken hiruhilekoan bildu behar da, nahitaez, dekretuaren emaitza ebaluatzeko. Nolanahi ere, indarrean den artean bi aldeek nahi beste bilera-deialdi egin ditzakete.

Jarraipen Batzordeari buruz dekretuak berenberegiz aurreikusi ez duenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko atariko tituluko II. kapituluko 3. atalak arautzen duen kide anitzeko organoen araubide juridikoa aplikatuko da.

SEIGARRENA.- Erakunde honek derrigorrez bete beharko du Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoa.

Zentzu berean, diru-laguntza publikoa jasoz gero, erakunde onuradunak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan eta baterakoetan ezarritakoa bete beharko du.

Dekretu honi dagokionez, Foru Aldundiaren diru-laguntza honen onuradunak, azpikontratazio gaitan, 5/2005 Foru Arauko 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Foru Erregelamenduko 53. artikuluan ezarritako betekizunak eta debekuak izango ditu. Gehenez ere diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 90 azpikontratatzea onartuko da.

Dicha Comisión estará presidida por el Director General de Cultura o persona en quien éste delegue, ocupando la Secretaría de la misma la Jefa del Servicio de Patrimonio Cultural.

La misma se reunirá obligatoriamente durante el último trimestre del año en aras a evaluar el resultado final de la ejecución del presente decreto, sin perjuicio de que puedan ser convocadas otras reuniones durante el período de vigencia del mismo, a instancias de cualquiera de las dos partes interesadas.

En lo no previsto expresamente en el decreto sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3ª del capítulo II del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

SEXTO.- La entidad quedará obligada al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En idéntico sentido, la concesión de subvención pública conlleva que la entidad beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los artículos 33 y concordantes de la mencionada Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

A los efectos del presente decreto, la beneficiaria de esta subvención foral queda obligada al cumplimiento de los requisitos y prohibiciones regulados en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 y en el artículo 53 del Reglamento foral de subvenciones, en materia de subcontratación. El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90% del importe de la actividad subvencionada.



Diru-laguntza honen onuradunak jakinarazi beharko du helburu bererako, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso izana.

Igualmente, la beneficiaria de esta subvención queda obligada a comunicar la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

ZAZPIGARRENA.- Halaber, Museo Diocesano de Arte Sacro -Eleiz Museoa. Bizkaia entitateak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntzaren berri emateko konpromisoa hartzen du; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren ikurra jarriko du pankarta, kartel eta hedapenerako gainerako euskarri guztietan foru aldundiak proiektu honi emandako babesa agertzeko.

SÉPTIMO- Asimismo, el Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia se compromete a difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia incluyendo en las pancartas, carteles y cualquier otro medio de difusión el patrocinio foral de este proyecto insertando el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da, hitzez hitz:

Para ello se utilizarán, obligatoriamente los elementos establecidos en la imagen corporativa de la Diputación Foral de Bizkaia, incluyendo junto al logotipo la siguiente frase literal:

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

Euskara hutsean garatutako proiektuetan, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da ere.

En los proyectos desarrollados íntegramente en euskera, deberá incluirse, además, la imagen del “Txantxangorri del euskera”.

Ekarpen honen erakunde onuradunak honako hauetarako konpromisoa ere hartzen du:

La entidad beneficiaria de la presente aportación se compromete también a:

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkartzean eta negoziazio

- Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva,



kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.

- Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta bere jarduerari lotutako edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

- Bere jarduerak gauzatzen diren bitartean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua jasotzen dituen printzipio nagusiak gordetzea, eta bereziki ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan).

ZORTZIGARRENA.- Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko artikuluan edo Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamenduan jasotako betebeharretariko bat edo batzuk. Bestiak beste, honelakorik gertatzen bada:

-Emandako diru-laguntzari dagokion helburua betetzen ez bada.

asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

- Velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con su actividad.

- Asumir, en la ejecución de sus actividades, el uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc..) en cualquier soporte escrito o digital, y desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que, en su caso, se genere, todo ello al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

OCTAVO.- Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en el artículo anterior o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, entre otras:

-No cumplir la finalidad para la que la subvención fue concedida.



- Justifikatu beharreko guztia justifikatzen ez bada: diru-laguntza justifikatzen ez bada edo dekretu honetan ezarritakoaren arabera nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den diru-laguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ondarearen Zerbitzuak eskaera egin ondoren. Itzuli beharrekoa zuzen justifikatu gabeko zenbateko horrekin proportzionalki kalkulatu da.

-Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.

-Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.

-Hitzarmen honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

-Diru-laguntzaren zenbatekoa bere xede izan den jardueraren kostua baino gehiago bada, hori ere itzultzeko arrazoia izango da.

BEDERATZIGARRENA.- Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren garapenerako Diru-laguntzei buruzko Araudia onesten duenak, 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, entitate onuradunak euren borondatez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, azken horrek aurretik eskatu gabe. Hala gertatuz gero, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza itzuli arteko berandutza-korrituen zenbatekoa kalkulatu du aurrean aipatutako 76. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Onuradunak berak eskatuta foru diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori

- Incumplimiento de la obligación de justificación: la no justificación y la justificación insuficiente o deficiente en los términos establecidos en el presente decreto conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la subvención no justificada, previo requerimiento por parte del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia. El importe a reintegrar se calculará proporcionalmente a dicha cantidad no justificada correctamente.

-Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.

-La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas

-Incumplir los demás supuestos previstos en el presente decreto.

El exceso de financiación en relación al coste de la actividad subvencionada también constituirá motivo de reintegro.

NOVENO.- De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la entidad beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última. En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

La devolución de la subvención foral a instancia de la propia beneficiaria de la misma se deberá realizar mediante la



Kultura Ondarearen zerbitzuaren bulegoan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginda.

Onuradunak finantza erakunde batean ordainketa egin eta gero, ordainketa-agiriaren kopia edo sarreraren egiaztagiria bidali beharko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuari.

HAMARGARRENA.- Onuradunak Foru Administrazioen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluko I. kapituluan jasotako ekintza edo omisioren bat egiten badu, zehapen prozedura hasi ahalko da, foru arau horretako 61. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

Arau-haustekak diru-zehapenak ezarritik zehatuko dira. Honakoak izan daitezke:

- Isun finkoa, 75 eta 6.000 euro bitartekoa,
- Proporziozko isunan, hainbatetik bidegabeki lortu, ezarri edo frogatu gabeko kopuruaren hirukoitzera artekoa

correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio de Patrimonio Cultural. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

Una vez practicado el abono por la beneficiaria de la subvención foral en una entidad financiera, habrá de remitirse copia de la misma o justificante del respectivo ingreso al Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

DÉCIMO.- La comisión por la beneficiaria de cualquiera de las acciones u omisiones contenidas por el capítulo I del título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, podrá dar lugar a la apertura de un procedimiento sancionador a tenor de lo dispuesto en el artículo 61 de la citada Norma Foral, que se tramitará conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Las infracciones se sancionarán mediante la imposición de sanciones pecuniarias, que podrán consistir:

- En multa fija, comprendida entre 75 y 6.000 euros,
- En multa proporcional, que podrá ir del tanto al triple de la cantidad indebidamente obtenida, aplicada o no



izan daitekeena.

justificada.

Era berean, ondoko zehapenak ezartzea erabaki ahal izango da:

Así mismo, se podrá acordar la imposición de las sanciones siguientes:

- Bost urtez, gehienez, foru arlo publikoko diru-laguntza publikoak eta abalak ezin jaso izatea.
- Bost urtez, gehienez, erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea.
- Bost urtez, gehienez, Foru Aldundiko sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko debekua.

- Pérdida, durante un plazo de hasta cinco años, de la posibilidad de obtener subvenciones públicas y avales del sector público foral.
- Pérdida durante el plazo de hasta cinco años de la posibilidad de actuar como entidad colaboradora.
- Prohibición, durante un plazo de hasta cinco años, para celebrar contratos con cualquier entidad del sector público foral.

Zehapena ezartzeak ez du zerikusirik diru-laguntzaren kontzeptuan oker jaso den zenbateko hori itzultzeko betebeharrarekin.

La imposición de sanción será independiente de la obligación de reintegro de la cantidad indebidamente obtenida en concepto de subvención.

HAMAIKAGARRENA.- Dekretu honetan ezarri gabeko egoera edo inguruabarretan honako hau aplikatuko da: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; diru-laguntzen araudia onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, 5/2005 Foru Araua garatzen duena; eta, osagarri gisa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta bere izaera aintzat hartuta aplikatu beharreko beste edozein xedapen arauemaile.

UNDÉCIMO.- Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, y supletoriamente la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Halaber, Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotzen diren publikotasun aktiboaren arloko arauak aplikatu beharko dira.

Asimismo, serán de aplicación las normas de publicidad activa recogidas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.



HAMABIGARRENA.- Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko, datuak helburu bakarrarekin tratatuko dira: espediente hau eta beronekin zerikusia duen beste edozein espediente kudeatzea. Tratamenduaren arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Zuzendaritza Nagusia izango da.

Interesdunak bere datuak eskuratu ahal izango ditu, zuzentzeko edo ezabatzeko eskatu, datuen tratamendua mugatzeko eskatu, eta tratamenduaren aurka agertu, baina aurretik bere identitatea egiaztatu beharko du Laguntzan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Liburutegiko kristalezko eraikina): Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Atala - Diputazio kalea 7, Bilbo 48009-, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako edozein bide erabilita, "Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera" zuzenduta.

Interesdunak eskubidea du, halaber, kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazioa jartzeko, alegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean.

Era berean, aukera izango du Bizkaiko Foru Aldundiko datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, idazki bat bidalita Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko buruari (Diputazio kalea, 7- 48009 Bilbo).

DUODÉCIMO.- Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, los datos serán tratados con la finalidad de gestionar este y cualquier otro expediente relacionado con el mismo. La responsable del tratamiento será la Dirección General de Cultura del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.

La interesada podrá acceder a sus datos, solicitar su rectificación, su supresión o la limitación de su tratamiento; y oponerse a éste, previa acreditación de su identidad, en el Registro General de la Diputación Foral de Bizkaia - Laguntza (Edificio de cristal de la Biblioteca): Sección de Registro y Atención Ciudadana (Diputación, 7 – Bilbao 48009, o a través de cualquiera de las formas establecidas en el art. 16.4 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, dirigido a la "Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos".

La beneficiaria dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente (Agencia Vasca de Protección de Datos).

Así mismo, se podrá contactar con la persona delegada de protección de datos de la Diputación Foral de Bizkaia dirigiendo un escrito a la Jefatura de la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos, Diputación, 7 – Bilbao 48009.



HAMAHIRUGARRENA.- Ahdun Nagusiaren foru dekretu hau Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaiari, eta Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailaren Zerbitzu Orokorrei jakinaraztea.

DECIMOTERCERO.- Notificar el presente Decreto Foral del Diputado General al Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia, y a los Servicios Generales del Departamento foral de Euskera, Cultura y Deporte.

Kultura Ondarearen Zerbitzuko Burua. La Jefa del Servicio de Patrimonio Cultural. ZURIÑE MIREN ANTOÑANA OZAETA

Kultura Zuzendari Nagusia. Director General de Cultura. JOSEBA ANDONI ITURBE AMOREBIETA

PROBIDENTZIA/ PROVIDENCIA: *Ontzat ematen dut aurreko proposamena, horrekin ados nago. Ondorioz, aurkez bekio ahdun nagusiari foru dekretua eman dezan/ Presto mi visto bueno y conformidad a la propuesta antecedente y, en consecuencia, elévese a Decreto Foral del Excmo. Sr. Diputado General.*

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua. La Diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte. LOREA BILBAO IBARRA

Aurreko txostenak onartzen dira eta, ondorioz, horietan proposatzen denaren arabera ebazten da/ Se aceptan los anteriores informes y, en consecuencia, se resuelve de conformidad a lo que en ellos se propone

Ahdun Nagusia. El Diputado General. UNAI REMENTERIA MAIZ